



UXUE TRAIL MENDI LASTERKETAN PARTE HARTZEKO ARAUDI OFIZIALA 2026

1. **DATA eta LEKUA:** 2026ko ekainaren 14an ospatuko da Usurbilen (Gipuzkoa), goizeko 09:30etatik aurrera.
2. **MODALITATEAK eta IBILBIDEAK:** Probak 2 modalitate ditu, bakoitza irteera ordu ezberdin batekin:
 - 9:30 – LASTERKETA 12km eta 630 metroko desnibel positiboa duena.
 - 10:00 – UXUE PASEOA 5,5km.
 - Dortsal solidarioa (donazioa): beste bietan parte hartu gabe diruz lagundu nahi dutenentzat.
3. **PARTE HARTZAILEAK:** 18 urte beteak dituen edozein mendizale, atleta edota kirolarik parte hartu ahal izango du lasterketan; baita 15 urte beteta eduki eta guraso edota tutoreen baimena erakusten duenak ere. Paseorako ez da adin mugarik zehaztuko.

Lasterketan gehienez 500 parte hartzaile izango dira. Paseorako ez da plaza mugaturik izango. Parte hartzaile guztiek araudi hau bete beharko dute.

4. **KATEGORIAK:** Kategoriak honakoak izango dira:
 - LASTERKETA BANAKA:
 - Emakumezko absolutuak.
 - Gizonezko absolutuak.
 - LASTERKETA BINAKA:
 - Bi gizonezkoz osaturiko bikoteak.
 - Bi emakumez osaturiko bikoteak.
 - Bikote mixtoak.
5. **IZEN EMATEAK:** Edozein modalitatetan izena emateko kronoak.com webgunean egin behar da.

Izen ematea 2026ko martxoaren 15ean 19:00etan hasiko da, eta 2026ko ekainaren 12ra arte (22:00) eman ahal izango da izena.



6. **PREZIOA:** Lasterketan parte hartzea 16€ izango da pertsonako (bikoteka 32€). Uxue paseorako, aldiz, 12€ ordaindu beharko dira. Gainera, dortsal solidarioa egongo da (donazioa).

Ordainketa egiteak probetan parte hartzea suposatzen du horrek dituen zerbitzu guztiak (anoaguneak, osasun-laguntza, dutxak, kontsigna, lasterketa ostean, etab.) barne. Horretaz gain, opari poltsa eta beharrezko segurua jasoko du korrikalari bakoitzak.

7. **SEINALEZTAPENA:** Ibilbidea behar bezala seinaleztatuta egongo da kartel adierazgarriekin eta ikusgarri diren balizaje zintekin.

8. **ANOAGUNEAK:** gutxienez 2 anoagune solido-likido egongo dira lasterketan; hauetaz gain, azkena helmugan egongo da. Baina, antolakuntzak beharrezkoa ikusten badu, anoagune gehigarriren bat jarriko da. Anoagune hauetan parte hartzaileentzat produktu solido eta likidoak (ura, isotonikoak, fruta, gominolak, etab.) egongo dira. Bakoitzaren posizioa mapa eta perfiletan zehaztuta egongo da. Paseoan anoagune bat egongo da ibilbidean zehar eta azken hamaiketako frontoian.

9. **SARIAK:** Ondorengo sariak banatuko dira:

Lasterketa banaka:

1. Emakumezko absolutoarentzat Garaikurra + bestelako saria
1. Gizonezko absolutoarentzat Garaikurra + bestelako saria
2. Emakumezko absolutoarentzat Garaikurra + bestelako saria
2. Gizonezko absolutoarentzat Garaikurra + bestelako saria
3. Emakumezko absolutoarentzat Garaikurra + bestelako saria
3. Gizonezko absolutoarentzat Garaikurra + bestelako saria

Lasterketa binaka:

1. Gizonezko bikotearentzat Garaikurra + bestelako saria
1. Emakumezko bikotearentzat Garaikurra + bestelako saria
1. Bikote mixtoarentzat Garaikurra + bestelako saria

Gainera, parte-hartzaile guztien artean opari desberdinak zozketatuko dira sari banaketaren ondoren.



10. **SAILKAPENAK:** Sailkatzen diren korrikalari guztien emaitzak kronoak.com webgunean ikusi ahal izango dira.

11. **DORTSALEN BANAKETA:** Dortsalak Usurbilgo frontoian banatuko dira lasterketaren aurreko egunean, ekainaren 13an, larunbata, 18:00etatik 20:00etara eta lasterketa egunean 08:00etatik 09:15etara (paseoko poltsak 10:00ak arte hartu ahal izango dira).

Partaide bakoitzak, bere dortsala eta oroigarri poltsa jasotzeko norbere NAN originala erakutsi beharko du.

12. **INGURUMENA:** Ingurunea ahalik eta gehien zaintzeko eta zaborrak kontrol-guneetatik kanpora ez botatzeko eskatuko zaie parte-hartzaile guztiei. Xede horrekin zabor-ontziak ere ezarriko dira kontrol-guneetatik 100 metroko distantzia arte.

Uxue Trail lasterketa bere ibilbideko zati batean Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen duen eta bere jabetzakoa den "Irisasi" izeneko Herri Onurako menditik doa. Beraz, errespetatu beti antolakuntzak ezarritako eta balizatutako ibilbidea, bertatik atera gabe.

Oinarrizko arau hauek betetzen ez dituen korrikalari oro, probatik kanporatuko du antolakuntzak.

13. **OSASUN LAGUNTZA:** Antolakuntzak osasun laguntza zerbitzua jarriko du ibilbideko punturik estrategikoenetan eta baita irteera eta helmugan ere.

14. **SEGURTASUNA:** Segurtasun edo bestelako arrazoietan oinarriturik, antolakuntzak lasterketako ibilbidea aldatu edo ordeztu ibilbidetik desbideratu ahal izango du lasterketa. Eguraldi arrazoiak medio, lasterketa bertan behera uzteko eskubide osoa izango du antolakuntzak.

15. **LAGUNTZA EZBEHARRETAN:** Parte hartzaileak istripuren baten aurrean laguntza eman eta kontrol lekuetan edozein ezbeharren berri eman beharko du.

Usurbilen, 2026ko martxoaren 6an.